

## MARIARI GARBITZEKO EGUNEAN.

Arpegia badakar  
 Barrez egun sentiak,  
 Kanpoak Eguzkiak  
 Urrez badauz jauzten,  
 Andrea da zeurorri  
 Agur bat emon nairik,  
 Diralako goisetik  
 Guztiak jagiten.  
 Gaur emoten deutsue  
 Alboradea danak,  
 Choricho kantatzallak  
 Errama gañetan,  
 Euren chorrochioak  
 Esan gura dabela,  
 Zareala ederra  
 ¡O Ama sorreran!  
 Errekacho garbian  
 Kardinchai<sup>1</sup> ezkoturik<sup>2</sup>  
 Lumachoak kozkorrik  
 Bajakez jarriten,  
 Maria zareala  
 Guztizko egokia,  
 Galant miragarria  
 Dabe iragarten.  
 Larroseak dotore,  
 Lirioak arrorik,  
 Lurrinak isuririk  
 Dabe erakusten,  
 Sorreratik Maria  
 Aren usain gozoa,  
 Baño gozoagoa  
 Dozula botaten.  
 Bere zuritasuna  
 Belchargak<sup>3</sup> dau estaltzen,  
 Ichasoak gelditzen  
 Ondak bereala,

Zakusenean zelan  
 Zu zarean ederren,  
 Dontzellea dontzellen  
 Eta amen Ama.

Erregiñea zara  
 Edertasun danena,  
 Udarik galantena  
 Zugaz oi da zurtu,  
 Neguak iges egin  
 Infernuak gerria,  
 Eta bere anzia  
 Lotsarian galdu.

Baita uso politik  
 Zidarrezko errekan,  
 Deutsu zuri kantetan  
 Dabillala pozez,  
 Bakochak bere chandan  
 Euren doe andiak,  
 Urteko lau aldiak  
 Eskinten deu tsuez,

Zure oñatsai<sup>4</sup> laztan  
 Deutse egiten astruak,  
 Dauka zure buruak  
 Izarrez arua,  
 Zeure oñen aulkitzat  
 Daukazu illargia,  
 Ta barriz Eguzkia  
 Da zure man tua.

Nai zaitue agurtu  
 Aingeruak Zeruan,  
 Kriaturak soruan  
 Gure alkarren leyan,  
 Zeurorren sorreria  
 Loirik бага garbia,  
 Eta miragarria  
 Chit zalako izan.

(1) Gilguero.—(2) Humedecen.—(3) Cisne.—(4) Pasos.

Jaunak zinduzalako  
 Egiñ orren dontsua,  
 Orren bedekinatua  
 Ta Beretzat Ama,  
 Agur, agur, milla agur,  
 Guraso orren diña,  
 Izateko egiña  
 Jayo ziñeana.

. . . . .  
 . . . . .

Izanik zu jo Andrea!  
 Zorionez aĩñ betea  
 Norutza Emakumea  
 ¿Zoaz gaur goiñ jagirik?  
 Goiñaro orren charrean  
 Otzak kikillik bidean,  
 Edur leituen gañean  
 Zeure Jesus arturik?

Zek zaroaz Salenera  
 Loirik ez da garbitzera,  
 Garbitasuna berbera  
 Baldin beti bazara?  
 Egun sentia goisetan  
 Jakunean agerketan  
 Ibar, lau, ta tontorretan  
 Ezpada aĩñ ederra?

¿Zek zaroaz jo Maria!  
 Mota bagarik zuria  
 Uso edurrez jantzia  
 Templura garbi jarten?  
 ¿Ez padot nik erreketan,  
 Eta euren korrontetan  
 Urik iñor begiztetan  
 Zu duiñ leyar joaten?

Zu izanik ederrago  
 Illargia bera baño,  
 Izar bat chit argiago

Gaur ¿nai dozu garbitu?  
 ¿Nun daukazu baltzunarik?  
 ¿Nun oreiñ ta nun orbanik?  
 ¿Nun loirik ta ¿nun motarik?  
 ¿Nun dozu zek eraindu?

Zu zara bai, zu Andrea,  
 Gaurko legetik librea,  
 Ta zure onoidadea,  
 Ezkutau gura dozu,  
 Beste andrakunien gisan,  
 Loitu bagarik seingintzan,  
 ¿Zertan nai dozu Eliñan  
 Andra garbia sartu?

¡O Jaunaren Esposa!  
 Bere Ama ta Alabea!  
 Zeruko Erregiñea!  
 Arriturik naukazu!  
 Ikusirik zareala,  
 Legera loien erara  
 Erru bagea izanda  
 Borondatez umilldu.

Ez dakit agaitik bada,  
 Zeñ dan zurgarrien Ama,  
 Umilltasun ori ala,  
 Dozun garbitasuna  
 Biok nabe lotsaketan  
 Biok nabe kondenetan,  
 Nazalako arroketan,  
 Izanik loitasuna.

Umillen Irakaslea  
 Egin naizu umilldea,  
 Loirik bagako Andrea,  
 Egin naizu garbia,  
 Egiñ naizu loi au zuri,  
 Umill eta garbiz zeuri,  
 Nik dagizudan iduri,  
 Andra utsik zuria.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

